



AGENDA

ALBISTEAK

ELKARRIZKETAK

AMUAK

KOMUNITATEA

IRAKURLE TALDEEN MAPA

BIDEOAK

ARTXIBOA

SINADURAK

KOMUNITATEA

Hasiera • Komunitatea • Txema Arinas

TXEMA ARINAS

ERBESTEKO ELURRA – FELIPE JUARISTI

Ostirala, 2019-12-20 | Txema Arinas



Nago Felipe Juaristiren nobelagintzan hainbat genero, edo hobeto esanda, eremu literario ezberdin jorrazteko joera nabarmena dela, hau da, bere narragintzari eusten dioten oinarriko edo funtsezko gaiak zein moduak oso bertsuak direla, baina ez ordea bere literaturan –berdin io poesia edo narragintza den– agertzen diren nondik norakoak garatzeko hautatzen dituen konta-eremuak. Hori dela eta, benetan zoragarria den *Arinago duk haizea*, *Absalon* (1990, *Erein*) eleberriam zoramenaren inguruko baliabide faulknertarrak ardatz dira, *Itzarri nahi ez zuen printzesa*-rekin (2002, *Alberdania*) fantasia, *Airezko emakumeak* (2003, *Erein*) eleberriarekin genero historikora aldatzen zaigula ematen du,*Ez da gaua begietara etortzen*-rekin (2007, *Erein*) nobela sikologikora edota *Etxearen negarra*-rekin (2007, *Erein*) umorezkora. Azalez oso abiapuntu ezberdinak, funtsez ordea aitzakia hutsak Juaristiren berezko estilo zinez eta txit bereizgarria nola edo hala eta beti gailendu dadin. Hau da, Felipe Juaristiren eremu literarioa ezer baino lehen estiloa da duda izpirik gabe, izugarri ondo, dotore, maisu, landutako idazlanak eta gehienetan bi oinarri nagusi dituena: sotiltasuna (poeta doi nabaritzen denean nolabait eta ezinbestez) eta sakontasuna (berdin zaizkigu konta-eremuak edo tonuak, bizitzaren pisuzko gai nagusiak, gizakiaren gaineko gogoetak-eta, betiere azalez edo azpian agerian kausitzen baititugu). *Erbesteko Elurra* eleberrri berriarekin beste hainbeste, alegia.

Badago *Erbesteko Elurra* nobelan kontakizuna nolabait zuritu edo eragin nahi duen trama arin bat: “Fermin Alberdi euskal kazetaria Madrila bidaltzen dute Sebastian Saldiasen azken egunak nolakoak izan ziren kontatzeko. Horrek bizitza aldaraziko dio.” Alabaina, eta esan bezala, aitzakia hutsa euskal kultura edo euskalgintzaren inguruko hainbat potret eta batik bat gogoeta egiteko, beharbada euskal gizarteari buruzkoa orokorrean ere bai. Nolatan? Esan liteke Juaristi gaiztoa bilakatu zaigula euskalgintzari erreparatuz, hau da, delako portretak eta egiterakoan gure gizartean guztiz errotuak, hedatuak, diren zenbait prototipo sortu egin dituela, auskalo zeintzuengan oinarrituta, hau da, egiazkoak ala ez diren ereduak, hori ezin dugu jakin. Gainera, egiazkoak baldin balira, ez dugu jakiteko eskubiderik, ez digu ardura. Felipe Juaristik sortutako pertsonaiak berenez eredu baitira euskalgintzatik harago ere, hots, egunerokoan etengabe topatzen ditugun giza prototipoak bailiran. Gaiztoa nolabait esatearren, egiatan *Erbesteko Elurran* ironia, batez ere parodia, nagusi baitira gutxitan bezala, aldiaren behin ere iseka garbia tai gabe ematen diren eztenkaden indarraren arabera:

“Behin gogoan dut, Dioniso Belañeta poetak, Euskadi Irratian gidatzen duen literatura-programan Larrarteri buruz ari zela, eta hura gurtze aldea, “gure Marcel Proust” deitu ziola, arrandia eta ardailaz, eta Larrarte hamaika demonio gaizto eta ausartek hartu zutela, infernurako estratan. Berriaren egunkarian zuen zutabetxoan idatzi zuen Proust idazle ona zela, baina haren literaturak emakume usaina zuela eta berak, Larrartek, ez zuela marixutik ezer eta kontrakoa esanten zuenak igarriko ziola. Dionisio Belanetak barkamena eskatu zion Euskadi Irratiko programan, azpimarratuz bera literaturaz ari zela eta ez sexuaz. Baina iritzi-trukaketa horrek biotako inork espero ez zuen amaiera izan zuen. Zuriñe Mendikutebarrena antropólogo eta Unibertsitateko irakasleak manifestu bat bultzatu zuen, euskal literaturan gero eta sarriago eta gero nabariagoak ziren joera sexistak salatuz. Berrehun emakume idazlek sinatu zuten manifestu hura, tartean Anaíabelek. Belañetak eta Larrartek testu nimita bat, bai kantitate bai kalitate aldetik, sinatu zuten. Bat egiten zuten manifestuarekin, onartuko balitzaie beren presentzia, noski.”

Gauzak horrela, eta batez ere ironia errotik maite dugunok, nola ez gozatu delako parodiak gure mundu txikiko memelokeria eta itxura(gabe)keria gero eta hedatuagoak hain modu gordinean erretrataturik. Eta honekin batera, orohar, gure gizartearen aje gehienak ia alderreskan. Bada, beraz, beneta gozatzeko moduko liburu bat, niri behintzat aspaldi ez bezala, eta baliteke euskaraz leitzen birritan edo suertatu izana, irria etengabean eragin didana. Tamalez, badakigu, gure artean, eta oro har nonhahi ere hein handi batean, halako parodia usaineko liburuek oso ospe txarra dutela nire ustez gero eta nagusiago izaten diren euskalgintzako sudur tente eta begi harroetara, baliteke edonoren eztenkadaren beldur edo, baliteke ere lau katu izanda kritika oro desidentzia txiki baina zital bat delakoan, baliteke gurean kanpokoan kontra dena zilegi delako, baina etxekoan kontra betiere gustu txarrekoa, irain larria edo traizio handia. Antza, euskal literaturan dena gozo eta geza izan behar da derrigorrean, dotore eta fina, literaturako behin-behineko jakintsuen ahogozo estereotipatua asebetetzeko propio ustez behintzat goren-gorenkoa izanda ezinbestez. Eta badirudi umorea berez ez dela aintzat hartzekoa, fidatzekoa, susmagarria baizik, batez ere ironia, norbaiti zitala izan dakioken aldetik arriskugarria ere bai, deserosoa batik bat. Horrexegatik parodia oinarri izan duten eleberriek ez dute arrakasta handirik gure artean (ez dakit zer dela eta Iban Zaldtuaren *Euskaldun guztion aberria* (2009 Alberdania) gogora etorri zaidan ezustean), azpigeneroa bailtzan edo, ezer benetan kontuan ez hartzekoa edo, broma edo denborapasa hutsa aparteko atentziorik merezi ez duena.

Felipe Juaristiren *Erbesteko Elurra* eleberrian, aldiz, ez omen dago aitzakiarik liburuari muzin egiteko parodia berez eta batez ere ironiaren egiazko balioa edo garrantzia ulertzeko gai ez diren aldetik, parodia baino gehiago baita ohiko denez Juaristiren liburu guztietan bezala. Izan ere, liburuiko istorioak aurrera egin ahala Juaristik hain berezko dituen gorago aipaturiko sotiltasuna eta sakontasuna gailentzen zaizkio delako parodiari edo. Azken buruan istorioaren benetako nondik norakoa maitasuna baita, hau da, gai nagusia, ez baldin bada nagusia, edo kontrazalean ondotox adierazi bezala: “Maitasunari eustea bizitzari eustea baita; bizitza maite duenak ezin matasunik gabe bizi”. Halaber, ez dira gutxi *Erbesteko Elurra* kontakizunean azaltzen zaizkigun pisuzko gogoetak eta, benetan mamitsuak edo liluragarriak euskal kulturako pertsonai ezagunen arteko elkarrizketak. Eta den-dena, nire ustetan liburuaren ezaugarrietako nagusi bat dena ere, Juaristik izugarri ezti eta libre erabiltzen duen hizkerari esker ere neurri handi batean (niri behintzat, Patziku Perurenaren antzera euskararen kolorezko jatoriasun baserritar edo telurikoaren jagole porrokatua ez naizen eta ezin izan naizen aldetik, guztiz jasoa bezain zolia atsegina, egiatan modernoa bezain urbanoa, begitandu zaidana). Egia esanda, labur bilduta ere, *Erbesteko Elurra* eleberrian denetarik dago, dena oso mamitsua eta batez ere dibertigarria, baita eztabaidagarria ere, erabat zilegi edo zentzuzko denez, noski; baina, liburu soil batez hainbeste eta gogotik gozatu duzunean esker ona baino ezin duzu erakutsi, alafede.

Txema Arinas

Oviedon, 2019/12/20

Utzi zure iruzkina

Osatu kanta:
"Hegoak _____ banizko, nirea izango zen" (derrigorrezkoa, spam-aren kontra)

Zer da Komunitatea? Nola izena eman?

Zer da uberan.eus web orriko Komunitatea?

uberan.eus web orriaren euren sormen lanak partekatatu nahi dituzten kideek osatuko dute Komunitatea.

uberan.eus web orriaren baitan propio sortu den atal honetan, beraz, sormen lan horiek denak batuko dira. Eta bertan egongo dira erakusgai.

Komunitateko kideez gain, uberan.eus web orriara hurbiltzen den edonork ere bisitatu ahal izango du uberan.eus web orriko Komunitatea.

Zeintzuk dira Komunitateko kideak?

- Norbanakoak. Norbanakoak dira izen-abizena duten erabiltzaileak. Komunitatea atalean, sormen lanak gehitzeko aukera izango dute. Hitzak eta irudiak baliatuko ahal izango dituzte horretarako.
- Kolektibo literarioak, elkarteak. Komunitatea atalean, sormen lanak gehitzeko aukera izango dute. Hitzak eta irudiak baliatuko ahal izango dituzte horretarako.

Zer egin Komunitateko kide bihurtu eta edukia gehitzeko?

Kide izateko eskaera bideratuz: beheerago dagoen formularioa bete eta igorri behar duzu. Benetako datuak eman dituzela konprobatu ondoren, Komunitateko kide izateko eskaera onartuko zaizu.

Gida liburuxka bat bidaliko zaizu, eta gida horren bitartez zure sormen lanak uberan.eus orriko Komunitatera igotzeko xehetasunak jasoko dituzu.

Hortik aurrera, zure sormen lanak uberan.eus-era lotzeko aukera izango duzu.

Oharra: Ezingo da mezu iraingaririk argitaratu. Halakoetan, post hori ezabatzeko eskubidea izango du administrazioleak. Eta arazoa errepikatuko balitz, kideitza etengo litzateke.

Azken ekarpenak

Eider Perezen sormen lana: "Azken erregistroa"
2020-01-07
Eider Perez

KOTXEZ ZOAZENEKO BERTSO EZIN KASKARRAGOAK
2019-12-27
Txema Arinas

Ugaitz Agirrearen iritzi artikulua: "Eta aurtengo urrezko saria..."
2019-12-16
Ugaitz Agirre

Aintzane Usandizagaren testua "Sinadurak" atalean: "Barreen inbentarioa"
2019-12-09
Usandizaga(e)ko Aintzane

Artxipielaogaren negatiboa
2019-10-20
Lizar

Egin zaitez komunitateko kide

Izen-Abizenak / Elkartearren izena:

Posta elektronikoa:

AGENDA

ALBISTEAK

ELKARRIZKETAK

AMUAK

KOMUNITATEA

IRAKURLE TALDEEN MAPA

BIDEOAK

ARTXIBOA

SINADURAK

HARREMANETARAKO

Oier Guillán & Danele Sarriagarte
hitzenuberan@idazleak.eus

LEGE OHARRA

LAGUNTZAILEAK

